

**IKASTURTEA:** 2018-2019  
**IRAKASLEA:** JOANA LOBO  
**TALDEA:** Batxilergoko 1.B

**IRAKASGAIA:** LITERATURA UNIBERTSALA

**EDUKIAK:**

**Antzinatetik Erdi Arora:** mitologiak eta literaturaren jatorria. Epopeia handiak eta antzerki grekoa.

**Pizkundea eta Klasizismoa:**

- Munduko aldaketak eta gizakiaren ikuspegi berria Pizkundearen garaian.
- Amodioaren lirika: petrarkismoa.
- Hitz lauzko narrazioa: Boccaccio.
- Europako antzerki klasikoa. Isabeldar antzerkia Ingalaterran. Shakespeare.

**Argien Mendea:**

- Bihotz kritikoaren garapena: Ilustrazioa. Entziklopedia. Ilustrazioaren garaiko prosa.
- Eleberri europarra XVIII. mendean. Cervantesen eta espainiar pikareskaren ondorengoak literatura ingelesean.

**Mugimendu erromantikoa:**

- Erromantizismoa eta literatur mugimendua izatearen kontzientzia. Aitzindariak: Goethe.
- Olerki erromantikoa eta eleberri historikoa.

**XIX. mendearen bigarren erdialdea:**

- Errealismoko gaien eta teknika narratiboen bilakaera. Europako XIX. Mendeko eleberrigile garrantzitsuenak.
- Literatura iparramerikar handiaren sorrera (1830-1890).
- Modernitate poetikoaren abioa: Baudelairetik Sinbolismora.
- Europako antzerkiaren eraberritzea: antzerki berria eta pentsamolde berriak.

**Literaturaren ikuspegi berriak XX. mendean, eta literatur generoen eraldatzeak:**

- Idazmolde berriaren finkapena eleberrigintzan. Teknika narratiboen azterketa.
- Europako abangoardiak. Surrealismoa.
- Amerikar literatura handiaren gailurra. Belaunaldi galdua.
- Absurdoaren eta konpromisoaren antzerkia.

**KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:**

- **Azterketak:** ebaluazio bakoitzeko edota irakurketa liburu bakoitzeko bat (ikasleekin adosteko). Azterketetan irakurketa liburuen inguruko galderak eta horien pasarte baten iruzkina agertuko dira.
- **Lanak** (talde lanak edota pertsonalak), irakurketen ingurukoak, irakasleak zehaztuko dituenak; kalifikazio positiboa lortzeko, finkatutako epearen barruan aurkeztu beharko dira.
- **Gelako jarrera** (arreta mantentzea, partehartzea, ariketak betetzea, irakasle eta ikaskideekiko errespetua).

Kalifikazioetan, ebaluaziorako tresnen balioa honako hau izanen da:

- Azterketak: % 70 (bertan irakurketen inguruko kontrolak ere kontutan izango dira)
- Lanak: % 20 (talde lanak, banakako aurkezpenak, idazkera koadernoak).

–OHARRA: lanak eskatutako epean entregatzen ez badira, ez dira onartuko. Ebaluazioa gainditze-ko, ikasleak eskatutako lan guztiak aurkeztu behar ditu, bestela ez da mediarik egingo.

–Gelako jarrera, parte hartzea: **% 10**.

**Ekaineko nota** hiru ebaluazioen media eginez lortuko da.

#### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

Ebaluazio bakoitzak berreskurapena izango du, araudiaren arabera. Dena den, arloa gainditzeko, ikasleak ebaluazio bakoitzean eskatutako lan guztiak entregatu beharko ditu.

Maitzan, hirugarren ebaluazioaren berrezkurapena eta kutso osoarena batera egingo da.